

WIFlaren konfigurazio segurua gonbidatuentzat (UD-Visitor)

UD-Visitor sarea WIFI sare irekia da (zifratzerik gabekoa), Deustuko Unibertsitatera etortzen diren gonbidatuei konektatzeko bidea ematen diena.


Konektatzeko, testu-mezuak jasotzen dituen mugikor bat eduki behar duzu.

Ondoren, UD-Visitor sarearen konfigurazioa nola egin aurkezten dizugu Android mugikor batetik.

1. UD-Visitor sarera konektatu:



2. Honelako mezu bat aterako zaizu eta "Konektatu" klikatu behar duzu.



3. Automatikoki, nabigatzailea irekiko zaizu. Unibertsitateko bisitaria zarela esango dizu eta adierazteko mugikorra zein herrialdetan dagoen erregistratuta eta zein den mugikorraren zenbakia erregistratzeko. Gero, egin klik “Egiaztatu mugikorra” dioen lekuan.

¿Eres estudiante o empleado de la Universidad?

Si tienes una cuenta de la Universidad por ser estudiante o empleado, la red WiFi que deberías usar es **eduroam**.

Ve a eduroam.deusto.es para informarte.

No, soy un visitante en la Universidad

Si eres un visitante puedes registrarte usando el siguiente formulario para obtener acceso a Internet de forma temporal.

Por favor, introduce el **número del móvil** para registrarte como visitante. Este dato sólo se utilizará para identificarte en la red WiFi.

ESPAÑA ▼

Verificar móvil

4. Zure mugikorrera SMS bat bidali zaizula adieraziko dizu sartzeko kodearekin. Kode hori idatzi behar duzu horretarako dagoen espazioan. Idatzitakoan, eman “Egiaztatu kodea” botoiari.



Ya hemos enviado un SMS con el código a ese móvil el 03-MAY-21. Por favor, introduce el código a continuación. Si no lo encuentras pulsa en el botón "Reenviar código" para enviarlo de nuevo.

Introduce el código

.....


Verificar código

o solicita de nuevo el código


Reenviar código por SMS

[Cambiar el número de móvil](#)

5. Lege informazioa onartzeko eskatuko dizu eta gero, “Jarraitu” botoiari emateko.



6. Hori egindakoan, WIFI UD-Visitor sarera konektatuta egongo zara eta UD-Guest sarera (segurua) nola konektatu erakutsiko du. “Ulertu dut” botoiari eman konfigurazioa amaitzeko.



- 7.** Eman zaizun sartzeko kodearekin 3 gailu konektatu ahal izango dituzu gehienez (adibidez, ordenagailua, tableta eta mugikorra), sartzeko beste kode bat eskatu beharrik izan gabe.

Batzuetan, gailu batzuen kasuan, prozesuaren amaieran deskonektatu eta konektatu egin behar da WIFI konexioa. Arazorik edo kontsultarik egin nahi izanez gero, jarri harremanetan IKT Gelarekin, aula.tic@deusto.es helbidera idatzita.